

RESOLUCIÓN 1064/2025, DE 19 DE JUNIO, DE LA DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, DE MODIFICACIÓN DE LA RESOLUCIÓN 769/2025, DE 16 DE MAYO, DE LA DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE PROCEDE A LA PUBLICACIÓN DEL NOMBRAMIENTO COMO PERSONAL ESTATUTARIO FIJO DE LAS PERSONAS ADJUDICATARIAS INCLUIDAS EN EL ANEXO DEL SISTEMA CONCURSO-OPOSICIÓN OPE ESTABILIZACIÓN, EN LA CATEGORÍA DE ENFERMERO/A CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, Y DE LA RESOLUCIÓN 770/2025, DE 16 DE MAYO, DE LA DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE PROCEDE A LA PUBLICACIÓN DEL NOMBRAMIENTO COMO PERSONAL ESTATUTARIO FIJO DE LAS PERSONAS ADJUDICATARIAS INCLUIDAS EN EL ANEXO DEL SISTEMA CONCURSO OPE ESTABILIZACIÓN, EN LA CATEGORÍA DE ENFERMERO/A CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, AMBAS PUBLICADAS EN EL BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO DE 23 DE MAYO DE 2025, POR LA QUE SE AMPLÍA EL PLAZO DE TOMA DE POSESIÓN.

Mediante Resolución 769/2025, de 16 de mayo, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se procede a la publicación del nombramiento como personal estatutario fijo de las personas adjudicatarias incluidas en el anexo del Sistema Concurso-Oposición OPE Estabilización, en la categoría de Enfermero/a con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 770/2025, de 16 de mayo, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se procede a la publicación del nombramiento como personal estatutario fijo de las personas adjudicatarias incluidas en el anexo del Sistema Concurso OPE Estabilización, en la categoría de Enfermero/a con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

El Resuelvo segundo de las citadas Resoluciones establece que: *“Las personas adjudicatarias dispondrán para la toma de posesión del destino correspondiente del plazo de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el BOPV”.*

Publicadas las Resoluciones en el Boletín Oficial del País Vasco del 23 de mayo de 2025, el plazo de toma de posesión finaliza el día 23 de junio.

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en su artículo 32, apartado 1º, establece que: *“La Administración, salvo precepto en contrario, podrá conceder de oficio o a petición de los interesados, una ampliación de los plazos establecidos, que no exceda de la mitad de los mismos, si las circunstancias lo aconsejan y con ello no se perjudican derechos de tercero. El acuerdo de ampliación deberá ser notificado a los interesados”.*

En este sentido, tras dictarse las referidas Resoluciones 769/2025 y 770/2025, y derivado de necesidades de gestión e incorporación de las personas adjudicatarias, es preciso modificar el plazo de toma de posesión de los destinos adjudicados, ampliándolo en 15 días, y finalizando, de este modo, el día 14 de julio de 2025.

Por todo ello, es preciso modificar las Resoluciones 769/2025 y 770/2025, en los términos que se indican en el resuelvo de la presente Resolución.



En virtud de las facultades conferidas por la legislación vigente,

RESUELVO:

Primero. – Modificar la Resolución 769/2025, de 16 de mayo, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se procede a la publicación del nombramiento como personal estatutario fijo de las personas adjudicatarias incluidas en el anexo del Sistema Concurso-Oposición OPE Estabilización, en la categoría de Enfermero/a con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, y la Resolución 770/2025, de 16 de mayo, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se procede a la publicación del nombramiento como personal estatutario fijo de las personas adjudicatarias incluidas en el anexo del Sistema Concurso OPE Estabilización, en la categoría de Enfermero, ambas publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco del 23 de mayo de 2025, en el sentido de ampliar en 15 días el plazo señalado para la toma de posesión, y finalizando, de este modo, el día 10 de julio de 2025

Segundo. - En virtud de lo dispuesto en el artículo 51 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se mantiene la validez de las disposiciones de la las referidas Resoluciones 769/2025 y 770/2025, de 16 de mayo que no resulten afectadas por la modificación introducida por la presente resolución.

Tercero.- De acuerdo con lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, así como en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales de Osakidetza-Servicio vasco de salud, contra esta Resolución podrá ser interpuesto recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Se ordena la publicación de la presente Resolución 1064/2025, de 19 de junio, de la Directora General de Osakidetza- Servicio vasco de salud, en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de junio de 2025.



Fdo: Susana López Altuna

DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA- SERVICIO VASCO DE SALUD

1064/2025 EBAZPENA, EKAINAREN 19KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ LANPOSTUAZ JABETZEKO EPEA LUZATZEN BAITA ETA HONAKO BI EBAZPEN HAUEK ALDATZEN BAITIRA: 769/2025 EBAZPENA, MAIATZAREN 16KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARATZEN BAITA EGONKORTZEKO EPE-KO LEHIAKETA-OPOSIZIO SISTEMAREN ERANSKINEAN SARTUTAKO ESLEIPENDUNEN ESTATUTUPEKO LANGILE FINKOAREN IZENDAPENA, ERIZAINA KATEGORIAN, DESTINOA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU-ERAKUNDEETAN IZANIK, ETA 770/2025 EBAZPENA, MAIATZAREN 16KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARATZEN BAITA EGONKORTZEKO EPE-KO LEHIAKETA-SISTEMAREN ERANSKINEAN SARTUTAKO ESLEIPENDUNEN ESTATUTUPEKO LANGILE FINKOAREN IZENDAPENA, ERIZAINA KATEGORIAN, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU-ERAKUNDEETAN DESTINOA IZANIK, BIAK ERE 2025EKO MAIATZAREN 23KO EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN ARGITARATUTAKOAK.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 16ko 769/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin zen Egonkortzeko EPEko lehiaketa-oposizioko sistemaren eranskineko esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, erizaina kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 16ko 770/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin zen Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistemaren eranskineko esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, erizaina kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik.

Ebazpen horietako Bigarren ebazpen-zatiak honako hau ezartzen du: *“Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera”.*

Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dira eta 2025eko maiatzaren 23an amaituko da lanpostuaz jabetzeko epea.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, honako hauek arautzen du 32. artikuluan 1. apartatuan: *“Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie”.*

Horren arabera, esandako 769/2025 eta 770/2025 Ebazpenak eman direnez eta esleipendunak laneratzeko eta horren kudeaketa egiteko beharrezkoa denez, aldatu egingo da esleitutako destinoez jabetzeko epea eta 15 egunez luzatu. Hortaz, 2025eko uztailaren 14an amaituko da.

Horregatik guztiagatik, aipatutako 769/2025 eta 770/2025 Ebazpenak aldatu egin behar dira, ebazpen honen ebazpen-zatian adierazitako moduan.

Indarrean dagoen legediak emandako ahalmenez baliaturik,

EBAZTEN DUT:


Lehenengoa.— Aldatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 16ko 769/2025 Ebazpena, zeinaren bidez argitaratu baitzen Egonkortzeko EPEko lehiaketa-oposizio sistemaren eranskinean sartutako esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, erizaina kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik, eta 770/2025 Ebazpena, maiatzaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratu baitzen Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistemaren eranskinean sartutako esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, erizaina kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik, biak ere 2025eko maiatzaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoak. Hain zuzen ere, lanpostuaz jabetzeko epea aldatzea, 15 egunez luzatzeko, 2025eko uztailaren 10era arte.

Bigarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, baliozkoak izango dira aipatutako maiatzaren 16ko 769/2025 eta 770/2025 Ebazpenetako xedapenak, baldin eta ebazpen honek egindako aldaketak eragiten ez badie.

Hirugarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutuak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1064/2025 Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 19(a).


 **Osakidetza**
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL Izpta.: Susana López Altuna

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA